Bidearte 10, 48970 Basauri 944666311 www.basauri.eus cultura@basauri.eus

Dekretozk./Nº de Decreto:
2730/2024

| | |
|---|---|
| **Espediente Zk. /** Nº Expediente: | **CARTEL/2024/1** |
| **Unitate arduraduna** / Unidad responsable: | JAIAK FIESTAS |
| **Prozedura** / Procedimiento: | Jaietako kartelen deialdia Convocatoria de carteles de Fiestas |
| **Interesatua** / P. Interesada: | |
| **Ordezkaria** / Representante: | |

**GAIA:**TXIKI KARTEL LEHIAKETAREN DEIALDIA

ASUNTO:CONVOCATORIA CONCURSO CARTEL TXIKI

Ikusi da JAIAK(a)ren Ataleko buruak emandako ebazpen-proposamena, erreferentziako espedienteari buruzkoa, eta honela dio, hitzez hitz:

Vista la propuesta de resolución emitida por el/la Jefe/a del Departamento de FIESTAS, recaída en el expediente de referencia, que copiada dice:

**2024ko ekainaren 25eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean -122 zenbakiduna- argitaratu ziren SAN FAUSTOKO JAIAK 2024KO KARTEL LEHIAKETAren («TXIKI» kategoria) Oinarri Arautzaileak, eta, bertan xedatu bezalaxe, orain lehiaketaren deialdia egitea dagokio.**

De acuerdo con las Bases reguladoras del CONCURSO DE CARTELES FIESTAS SAN FAUSTO 2024 (categoría «TXIKI») publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 122, de 25 de junio de 2024, corresponde realizar la convocatoria del concurso para de elegir el cartel que anunciará las fiestas de San Fausto 2024.

**Gai hau Alkatetzaren eskumenekoa da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluaren arabera, zure irizpenerako, honako hau**

Siendo el conocimiento del presente asunto competencia de la Alcaldía conforme a lo dispuesto en el art. 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de Régimen Local, elevo a su consideración, la siguiente

**PROPOSATZEN DUT:**

**PROPUESTA DE RESOLUCIÓN:**

**LEHENENGOA: BASAURIKO UDALAK SAN FAUSTOKO JAIAK 2024 IRAGARTZEKO ANTOLATUTAKO KARTEL LEHIAKETAREN («TXIKI» kategoria) DEIALDIA onestea, honako baldintza hauei jarraituta:**

PRIMERO: Aprobar la CONVOCATORIA DEL CONCURSO DE CARTELES (categoría «TXIKI»), ORGANIZADO POR EL AYUNTAMIENTO DE BASAURI, CON EL FIN DE ELEGIR EL QUE ANUNCIARA LAS FIESTAS DE SAN FAUSTO 2024, de acuerdo con las siguientes condiciones:

**1.- Egile bakoitzak, gehienez ere, lan bat aurkeztu ahal izango du.**

1.- Podrá presentarse un máximo de una obra por autor o autora.

**2.- Kartelak DIN A-3 neurrikoak (420 X 297 mm) izango dira, eta oinarri hauekin batera atxikitzen den ereduaren araberakoak. Eredu hori eskuragarri egongo da Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoetan eta Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus).**

2.- Los carteles se confeccionaran en tamaño DIN A3 (420 x 297 mm) y en el modelo que se adjunta como anexo. La plantilla estará disponible en los Servicios de Atención ciudadana municipales y en la página web del Ayuntamiento de Basauri www.basauri.eus.

**3.- Lehiaketara Basauriko Jaiek berezko dituzten gai eta sinboloak aurkeztuko dira, eta parte hartu ahalko dute Basauriko ume guztiek. Lanean ezingo da jarrera homofoboaren, xenofobaren, ez hizkera, irudi edo eduki sexistaren publizitatea edo horiek bultzatzea bilatuko duen erreferentziarik egin, ez eta animalien aurkako tratu txarrak eta alkoholdun edarien edo tabakoaren kontsumoa sustatu —Udalak gaiari buruz onartutako araudiarekin bat—. Ildo horri jarraiki, Epaimahai Kalifikatzaileak lehiaketatik kanpo utzi ahalko ditu araudiaren kontra doazen kartelak. Parte hartu ahal izango dute LH1 eta DBH1 arteko umeek. Ezinbestekoa izango da lanak jatorrizkoak izatea, ez jadanik argitaratutako argazki, kartel edo marrazki baten edo horien zati baten kopia.**

3.- El concurso se ajustará a temas y símbolos propios de las fiestas de Basauri y podrán tomar parte todos/as los/as niños/as de Basauri. No se incluirá en la obra ninguna referencia que suponga publicidad o incitación a actitudes homófobas, xenófobas, ni lenguaje, imágenes o contenidos sexistas, así como incitación al consumo de bebidas alcohólicas y tabaco y, maltrato animal, todo ello de acuerdo con la normativa aprobada al respecto por el Ayuntamiento, quedando facultado el Jurado calificador, para dejar fuera de concurso los carteles que pudieran contravenir dicha normativa. Es condición indispensable que las obras sean originales y no supongan en todo o en parte del trabajo una copia de escena fotográfica, cartel o dibujo ya publicado.

**4.- Kategoria bi bereziko dira: - «Txikiak»: 6 eta 9 urte bitarteko Basauriko haurrak. - «Gazteak»:10 eta 13 urte bitarteko Basauriko haurrak.**

4.- Se establecen dos categorías - Txikiak: podrán tomar parte los/las niños/as de Basauri de 6 a 9 años. - Gazteak: podrán tomar parte los/las niños/as de Basauri de 10 a 13 años.

**5.- Lanak aurkeztea.**

**5.1.- Bulegoetan Kartelak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira. Atzealdean leloa idatziko zaie, «TXIKIAK» edo «GAZTEAK» berbarekin batera. Kartelari grapatuta, itxitako gutun-azala ere aurkeztuko da, kanpoaldean kartelaren lelo bera eta egilearen adina eta ikasturtea adierazita. Gutun-azalaren barruan, berriz, egilearen datu hauek jasotzen dituen oharra sartuko da: izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta zein ikastetxe eta ikasturtetan dagoen.**

5. Presentación de las obras.

5.1- Presencial Los carteles se presentarán sin firma del autor o autora y bajo un lema que figurará escrito en el respaldo del trabajo junto con la palabra TXIKIAK o GAZTEAK en función de la categoría. Se acompañará igualmente un sobre cerrado, que irá grapado al dibujo figurando en su exterior el mismo lema del cartel y la edad y curso del autor o autora. En el interior del sobre se depositará una nota con el nombre y apellidos, residencia, domicilio y número de teléfono del autor o autora, centro escolar y curso al que pertenece.

**5.2.- Telematikoki Lanak telematikoki ere aurkeztu ahalko dira. Horretarako, lotura bat jarriko da www.basauri.eus helbidean, eta parte-hartzaileek beren kartelaren irudia igo ahalko dute, JPG formatuan, beren identifikazio-datuekin batera (izen‐abizenak, helbidea, telefono-zenbakia, ikastetxea eta ikasturtea). Lanak, noski, deialdian adierazitako epe barruan aurkeztu beharko**

5.2.- Telemática Las obras se podrán presentar también vía telemática. Para ello se colocará un enlace en la página web www.basauri.eus a través del cual quienes participen podrán adjuntar una imagen de su cartel en formato JPG, así como en documento a parte los datos necesarios para poder identificarle una vez conocido el fallo del jurado (nombre y apellidos, residencia, domicilio y número de teléfono del

Bidearte 10, 48970 Basauri 944666311 www.basauri.eus cultura@basauri.eus

**dira. Edozelan ere, kartelean honako hau agertu beharko da: SAN FAUSTO 2024 BASAURI URRIAK 11-20 OCTUBRE**

autor o autora, centro escolar y curso al que pertenece), siempre dentro del plazo que se indique en la publicación de la convocatoria. En todo caso en el cartel deberá figura la siguiente inscripción: SAN FAUSTO 2024 BASAURI URRIAK 11-20 OCTUBRE

**6.- Epaimahai Kalifikatzailea honako hauek osatuko dute:**
**Epaimahaiburua: alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia.**
**Epaimahaikideak: — Alderdi bakoitzeko ordezkari bat. — Herriko Taldeaken ordezkari bi. — Zoroaken ordezkari bi. — Artista bi edo arlo horretako teknikari bi.**
**Idazkaria: udal langile bat.**

**Epaimahaian emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeko ahaleginak egingo dira sexu bakoitzeko pertsonak ordezkatuta egon daitezen. Gainera, Basauriko Udalak dagokion neurriak hartuko ditu kartelaren proposamenak baloratzeko prozesuan genero-ikuspegia txertatzeko gaitasuna edo prestakuntza duten pertsonek epaimahaian parte har dezaten. Horretarako, Udaleko berdintasun Arloak dekalogo bat eskuragarri jarriko du, hautaketa-prozesuan genero ikuspegiko irizpideak bilduko dituena, “Gazteak” kategoriarako zein “Txiki” kategoriarako.**

6. El Jurado calificador estará compuesto de la siguiente forma:
Presidencia: Sr. Alcalde o concejal o concejala en quien delegue.
Vocales: — Un representante de cada partido. — Dos representantes de Herriko Taldeak. — Dos representantes del Zoroak. — Dos artistas o personal técnico en la materia.
Secretario: Un funcionario o funcionaria municipal.
La composición del jurado procurará garantizar una presencia equilibrada de mujeres y hombres en su nombramiento para que las personas de cada sexo estén representadas. Además, el Ayuntamiento de Basauri adoptará las medidas oportunas para favorecer la participación en el jurado de personas con capacitación, competencia o preparación para incorporar la perspectiva de género en el proceso de valoración de las propuestas del cartel. Para ello, el Área de Igualdad municipal facilitará un decálogo que reúna los criterios que faciliten el proceso de elección desde una perspectiva de género, tanto para la categoría “Gazteak” como para la categoría “Txiki”.

**7.- Epaimahai Kalifikatzailea udaletxean batuko da 2024ko irailaren 6an, kategoria bakoitzeko kartel irabazlea hautatzeko —kartel seniorra aukeratu eta gero—.**

7. El Jurado Calificador se reunirá en la Casa Consistorial, con el fin de elegir los carteles ganadores en cada una de las categorías el día 6 de septiembre de 2024 a continuación de la elección del cartel senior.

**8.- Epaimahaiak saria eman gabe utzi ahal izango du, jotzen badu aurkeztutako lanek gutxieneko maila artistikorik ez dutela, edo ikusten badu lehiaketa ez dela egin behar, aurreikusi gabeko inguruabarrak edo inguruabar bereziak direla eta.**

8. El Jurado quedará facultado para declarar desierto el concurso, si se estima que los trabajos presentados no alcanzan un mínimo nivel artístico, así como en el caso de que circunstancias imprevistas o/y extraordinarias aconsejaran la no realización del mismo.

**9.- Automatikoki baztertuak izango dira oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten lanak.**

9.- Aquellos trabajos que no cumplan los requisitos exigidos en estas bases quedarán automáticamente eliminados.

**10.- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta ezagutzera emango da ohiko komunikabideak erabilita.**

10. El fallo del Jurado será inapelable y se hará público por los medios normales de difusión.

**11.- Sari nagusi bakarra banatuko da kategoria bakoitzean (aurrekontupartida: 2024 102.3382.48099 - T. A. familientzat. JAIAK) Hauxe izango da: «Gazteak» kategoria - Basauri Kirolakeko igerilekuan ordubeteko egonaldia, eta, gero, askaria kafetegian, gehienez ere 15 umerentzat, instalazioak libre dauden egun batean. Eta Basauriko Indoor Multiabentura Parkerako lau sarrera, bi orduz bertan jarduteko. Saridunei telefonoz deituko zaie, azaltzeko zer egin behar duten sariaz gozatzeko. Jarduerak, bestalde, Epaimahaiak saria esleitzen duen datatik bi hilabeteko epean erreserbatu beharko dira. Zoroak kuadrillak lehiaketaren berri zabaltzen lagunduko du, eta 100 €-ko txartela emango du, Basauriko dendetan gastatzeko. «Txikiak» kategoria Social Antzokiko haur-ikuskizunetarako lau sarrera, eta zinemarako beste lau sarrera banatuko dira. Saridunei telefonoz deituko zaie, azaltzeko zer egin behar duten sariaz gozatzeko. Jarduerak, bestalde, Epaimahaiak saria esleitzen duen datatik bi hilabeteko epean erreserbatu beharko dira. Zoroak kuadrillak lehiaketaren berri zabaltzen lagunduko du, eta 50 €-ko txartela emango du, Basauriko dendetan gastatzeko.**

11.- Únicamente se otorgará un primer premio en cada una de las categorías con cargo a la Partida Presupuestaria: (2024 102.3382.48099 - T. Cor. A Familias.: FESTEJOS.) que consistirán en lo siguiente: Categoría Gazteak - 1 hora de piscina en las instalaciones de Basauri Kirolak y posteriormente merendola en la cafetería para un máximo de 15 niñas y niños, todo ello de acuerdo con la disponibilidad de las instalaciones y cuatro entradas al parque indoor multiaventura de Basauri o similar para la realización de actividades en el mismo durante dos horas. Se trasladará a quienes ganen vía telefónica las indicaciones necesarias para hacer efectivo el premio. Las actividades deberán en todo caso reservarse en el plazo máximo de dos meses desde la fecha del fallo del jurado. La cuadrilla Zoroak colaborará en las tareas de difusión del concurso y otorgará además en esta categoría Gazteak un vale de 100€ para consumir en los comercios de Basauri. Categoría Txikiak Se otorgarán cuatro entradas de cine y cuatro para espectáculos infantiles en el Social Antzokia. Se trasladará a las personas premiadas vía telefónica las indicaciones necesarias para hacer efectivo el premio. Las entradas deberán recogerse en la taquilla del Social Antzokia, en el plazo máximo de 2 meses desde la fecha del fallo del jurado. La cuadrilla Zoroak colaborará en las tareas de difusión del concurso y otorgará además en esta categoría Txikiak un vale de 50 € para consumir en comercios de Basauri.

**12.- 20 lanik onenak Ibaigane Kultur Etxean egongo dira ikusgai, urriaren 4tik 20ra bitartean (10 lan kategoria bakoitzeko).**

12.- Los 20 mejores trabajos serán expuestos en la Casa de Cultura de Ibaigane, entre los días 4 y 20 de octubre, (10 por categoría)

**13.- Epaimahaiak uste badu saritutako karteletan xehetasun edo koloreren bat aldatu behar dela, kartelak bere xedea hobeto bete dezan, egileek hala egin beharko dute. Era berean, egileari eskatu ahalko zaio obraren kopia bat aurkezteko DIN A-3 formatuan (beharrezko jotzen bada lanaren zabalkundea egiteko).**

13. Quienes ganen el concurso tendrán obligación de modificar cualquier detalle o color que a juicio del Jurado fuera necesario para el mejor logro del fin que se destina. Del mismo modo, se les podrá requerir para que aporten una reproducción de la obra en formato DIN A-3 si se estima necesario para la posterior difusión de la obra.

14. Los carteles premiados pasarán a ser

**14.- Udala izango da saritutako kartelen jabea, eta, beraz, horiek erreproduzitu eta banatu ahal izango ditu, egoki iritzitako une eta moduan. Hala eta guztiz, «Gazteak» kategoriako kartel irabazlea baino ez da agertuko Sanfaustoetan haur eta gazteei zuzendutako ekitaldiak jasotzen dituzten egitarauetan.**

**15.- Lanak Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztuko dira, lanegunetan, 08:00etatik 14:00etara bitartean. Aukeran, telematikoki aurkeztu ahaoko dira, www.basauri.eus udal webgunean. Kasu bietan, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik 2024ko abuztuaren 30ra bitartean.**

**16.- Lan bakoitza aurkeztu izanaren egiaztagiria emango da, kartela bueltan jaso ahal izateko —baldin eta saritua izan ez bada—. Telematikoki aurkeztutako lanen kasuan, sistema informatikoak egiaztagiria emango du, izapidea amaitzen denean.**

**17.- Saria jaso ez duten lanak Kultura-Politika eta Euskara Arloan jaso ahal izango dira hilabeteko epean, 2024ko urriaren 25etik aurrera. Udala ez da izango aurkeztutako lanak garraiatzean, maneiatzean, erakusgai jartzean, biltegiratzean edo antzekoetan gerta daitezkeen kalteen erantzulea.**

**18.- Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek goitik behera onartzen direla.**

**BIGARRENA: Adierazitako kontzeptu hauei aurre egiteko gastua baimentzea, adierazitako partidaren kontura: Jaietako kartel lehiaketa («TXIKI» kategoria):**

**400,00 € 2024. 102. 3382. 48099 – T. ARR. FAMILIEI, JAIAK.**

**HIRUGARRENA: Deialdi hau argitaratu dadila, bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, diru-laguntzen Datu Basen nazionalaren bitartez, bai lurralde historikoan zabalkunde handiena duten**

propiedad del Ayuntamiento que podrá reproducirlos y distribuirlos en el momento y forma que estime conveniente. No obstante, únicamente el cartel ganador de la categoría Gazteak, se reproducirá en los programas que anuncien los actos dirigidos a público joven e infantil que se lleven a cabo durante las fiestas de San Fausto.

15. Los trabajos se presentarán en los Servicios de Atención ciudadana, los días laborables de 8:00 a 14:00 horas, o vía telemática a través de la web municipal www.basauri.eus , desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia hasta el 30 de agosto de 2024.

16. Se entregará un recibo por cada trabajo presentado que facultará a retirarlo siempre cuando el cartel no resulte premiado. En caso de presentación telemática el sistema informático proporcionará un justificante en el momento en que se finalice el trámite.

17. Los trabajos no premiados podrán ser retirados en el plazo de un mes a partir el 25 de octubre de 2024 en el Área de Política Cultural y Euskera. El Ayuntamiento no se hará responsable de los daños que puedan recibir los materiales entregados como consecuencia de su transporte, manipulación, exposición, almacenaje o similar.

18. Las y los concursantes, por el hecho de serlo, aceptan en su integridad las presentes Bases.

SEGUNDO: Autorizar el gasto por los siguientes conceptos y con cargo a la partida que se indica: Concurso carteles fiestas (categoría «TXIKI»):

400,00 € 2024. 102. 3382. 48099 – T. CORR. A FAMILIAS FESTEJOS.

TERCERO: Ordenar la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia, a través de la Base de datos nacional de Subvenciones y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico, así como en el

**egunkarietako batean, baita Basauriko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere.**

tablón de anuncios del Ayuntamiento de Basauri y en la web municipal.

**LAUGARRENA: Eskabideak aurkezteko epea, Deialdia BAOn argitaratzen den dataren biharamunetik, 2024ko abuztuaren 30ra bitarte (biak barne) izango da.**

CUARTO: El Plazo de presentación de solicitudes será desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia, hasta el 30 de agosto de 2024, ambos inclusive.

Proposamen horrekin ados egonda, eta Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluak emandako ahalmenak baliatuta, honako hau

Encontrándola conforme y en ejercicio de las facultades establecidas en el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local,

**XEDATZEN DUT:**

**DISPONGO:**

Goian jasotako ebazpen-proposamena onestea eta bere horretan Ebazpen bihurtzea.

Aprobar la propuesta de resolución transcrita, elevándola a Resolución, en sus propios términos.

Udalaren kontu-hartzailetzak 04/07/2024(e)an fiskalizatu du proposamena, 2024/4433 erreferentzia-zenbakiarekin, eta emaitza: Kontrolatua arabera.

La propuesta ha sido fiscalizada por la intervención municipal en fecha 04/07/2024, con nº de referencia 2024/4433 y con resultado Fiscalización de conformidad.

Basauri, 2024ko uztailaren 5(e)an / 5 de julio de 2024
ALKATEA / EL ALCALDE
ASIER IRAGORRI BASAGUREN